


Elkarrizketa



Maureen McGarvey

Maureen McGarvey, RSA Dipl. TEFLA (1), Newcastle-n (Ipar Ingalaterra) jaioa eta Donostiako Lacunza Akademiako EFL (2) irakaslea eta Lacunza-International Houseko irakasle-prestatazaile da. Bera Londreseko ITTIko (3) irakasle-prestatazaile titulatu dugu. Beraziki goi mailako ingelesaren irakaskuntzan aritzen da.

Berarengana jo dugu irakasleen prestakuntzari, irakasle-prestatazaileei eta irakasle-zentruari buruzko informazioaren bila.



GALDERA.— Zenbat denbora darazazu Donostian?

ERANTZUNA.— Bi urte. 1982.eko ekainean heldu nintzen oporretan, autobusez 23 ordutako bidaia luzea egin ez. Gogoan daukat zeinen egun ederra zen. Hiri hau asko gustatu zitzaidan eta Londresera itzuli nintzenean, Londreseko International Housek irakasleak hautatzeko duen departamentuan eskaera bat egin nuen, Donostian ingeles-irakasle lanpostua lortzeko asmoz; eta zorionez lanpostua lortu egin nuen.

G.— Zer lan egin duzu irakaskuntzan orain arte?

E.— 1974.ean, ingeles-irakasleen prestakuntzarako lau astetako ikastaroa egin ondoren, atera nuen RSA Preparatory Certificate Londresen. Ihen (4) lan egin nuen 1974etik 1978ra. Tarte horretan maila guztietan aritu nintzen irakasten, behe mailetatik goi mailetara. 1978an RSA Dipl. TEFLA atera eta Ingalaterrako Hego-mendebaldera joan nintzen lan egitera, hona etorri arte.

(1) RSA Dipl. TEFLA, RSA Diploma eta RSA Dipl. in TEFL: Royal Society of Arts Diploma in Teaching English as a Foreign Language to Adults.

(2) EFL: English as a Foreign Language.

(3) ITTI: International Teacher Training Institute.

(4) IH: International House.

G.— Nola heldu zinen irakasle-prestazaila izatera? Ikastaro bereziren bat egin behar izan zenuen?

E.— Nik ez nuen «ikastaro» berezirik egin, horrelakorik ez bait dago. Bada egin behar den «programa» edo «prozesu» bat, Londreseko ITTIIn onartua izan ahal izateko; baina «ikastaro» berezirik ez dago.

Ni ez nintzen irakasle-prestazaila lanetan hasi hona etorri arte. Akademian irakasleen prestakuntzarako dugun programarekin hasi nintzen lanean, RSA Diplomarekin hain zuzen, gure irakasleak prestatzen. Irakasle berri batzuren hasi nintzen lanean, mintegi batzu emanez. 1983ko udan tutore izan nintzen ingeles-irakasleen prestakuntzarako, beste hizkuntza batzuetako irakasleentzat ere irekia zegoen lau astetako ikastaroan. Hori izan da nik eman dudana lehendabiziko ikastaro benetakoa. Harrezkero Londresen ITTIIn hilabete batzu eman ditut, benetako irakasle-prestazaila izateko.

G.— Donostiako akademian irakasle-zentru bat baduzue. Zer da, nori zuzendua dago eta zein helbururekin sortu zenuen zentrua?

E.— Ingelesa irakasten duten hemengo irakasleekin harremanetan jartzea eta dauzkagun esperientziak eta ezagupenak elkartrukatzeko toki bat edukitzea zen gure asmoa. Irakasle-zentruaren helburua, nire ustez, informazioa elkartrukatu, EFLen alorrean gertatzen ari denaren jakinaren gainean egon eta aplikazioez baliatzeko foro bat izatea besterik ez da. Hemengo irakasleen laneko egoera eta gureak oso desberdinak dira; esate baterako, hemengo irakasleek ikasle askorekin aritu behar dute, tresneria ez da oso egokia, oso maila desberdineko ikasleak egoten dira klase berean. Hala ere, dauzkaten arazo larriak irtenbidea ematen saiatzen dira. Gu hobeto gaude, klase txikiak eta homogeneoak bait dauzkagu.

Hemen ingelesa irakasten duten irakasleak ez dira hona etortzen zer egin behar duten gulgandik jakitera. Hori ez

da kontua, guk haien arazoetatik ikaslea baizik eta EFL teoria akademietan, baldintza idealetan ematen den bezala, hain onak ez diren beste egoera batzutan ematea posible ote den. Sarritan egitea ditugu bilerak interesatzen zaizkigun gaietara hitzegiteko. Orain arte mintegi gehienak hemengo irakasle eta irakasle-prestazaila eman izan dituzte, gure laneko gorabeherak aztertuz, beste irakasle batzuentzat ere baliagarriak bait dira. Oso interesgarri da guretzat irakurmenean pentsatzea, esate baterako, irakasleen egoerak kontuan hartuz. Orduan konturatzen zara zuk akademiako irakasleei esango zeniekeenak ez duela balio, eta egokitu beharra daukazula. Kontuan akademiako egoera bakarrik izango bagenu, bidezkoa litzateke galdera hau: nola egin dezaket hori berrogeita bost ikasleekin, eta material eta mobiliario hauekin? Irakasleek eskoletan dauzkaten arazo berezietan buruzko mintegiak egiten saiatzen gara, nahiz eta guk geuk horrelako arazo batzu ez izan; esate baterako, talde handiak, OHO, BBB, edo UBiko ingeles-programa bereziak etab., ez dira akademian dauzkagun arazo konkretuak. Irakasleek pentsa erazten digute arazo horietan, bestela burutik pasa ere ez litzazkiguke egingo. Asko ikasten dugu irakasleengandik, batez ere eskoletako irakaskuntzaz, zeren bai bait du horrek bere eragina gure ikasleen klasietan. Beste horiek nola lan egiten duten eza gutuz, hobeto programa ditzakegu gure klaseak. Irakasle-zentrua irakasleen elkarrekin handi bat da. Oinarrizko asmoa ingelesaren irakaskuntzan aritzen den edozeinentzako zentru bat edukitzea da, elkarriz lagundu ahal izateko.

G.— Zeintzu dira aurreko zentruen burutako dituzuen ekintzak?

E.— Abendurarteko programa burututa dago jadanik, zeren eta beharrezko dugu zerbait aurrez programatuta izatea, datozen hiru edo lau mintegietarako. Hauek dira, esate baterako, hurrengo hiru hilebetetarako programatutakoak: «Hizkuntza ikaskuntzarako metodologiak: iraganetik gaur egunera», «Ikas-

leei nola irakur erazi» eta «Ikasleen testuliburuari begirada bat». Ez zait oso egoki iruditzen urte osoko programa zehatza antolatzea. 35 pertsonak zer entzun nahi duten aurrez badakigula pentsatzea oso ausarta iruditzen zait. Irakasleekin hitzegin eta gero interesatzen zaien programa prestatu ahal izango dugu.

Mintegi hauetako batzu editore edo testugileen kargu egongo dira. Donostia sona handia hartzen ari da zentruko partaideek bisitatu gaituzten hizlariei egin dieten harrera txeratsuatik. Irakasle-zentrua autonomoagoa bihurtzea nahi genuke. Oraingo akademian menpean dago arrazoi estrategikoengatik: tokia, idazkaritza, erraztasunak... Askok gustatuko litzazuke komite antzeko zerbait edo irakasle-talde txiki bat eratzea, irakasle-zentruko partaideek hautatua, irakasle-zentruaren dinamika aurrera eramateko. Honek esan nahi du horiek erabakiko luketela zein mintegi hautatu eta antolatu eta, era berean, administrazioko lan batzuren ardura ere beren gain izango luketela... Gure lana, batez ere, aholku ematea izango litzateke, zenbait mintegi egiteko tokia eta irakasle-prestataileak hornituz. Honek esan nahi du irakasle-zentruaren zuzendaritza-lanaren parte handi bat irakasle-zentruaren partaideen kargu geldituko litzatekeela.

G.— Eta zer esan diezagukezu lau aste irauten duen irakasle-prestakuntzarako ikastaro trinkoaz?

E.— Hemen ematen dugun ikastaroa RSA Preparatory Certificate-aren moldakuntza bat da. Hau da IHko zentruetako irakasleek behar duten oinarritzko titulua. Ikastaroaren helburua zera da: klasean egiten diren ekintzen barneko teoriak ezagutzea. Ikastaroaren antolamenduaren helburua klasean egiten dugunaren filosofia aztertu eta horren estrapolazioa egitea da, gero praktikan aplikatu ahal izateko. Beraz, bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko teoriak aztertzea izango litzateke helburua, nola programatu ikasturtea, nola programatu ikastunitateak, nola erabili

testuliburuak, nola landu eta orekatu lau trebetasunak. Zenbat eta gehiago ezagutu hizkuntz irakaskuntzari buruzko metodologiak, orduan eta hobea izango da hauen aplikazioak. Ikasleek eta hauen beharrez jabetzea da helburua. Zeren eta zenbat eta gure ikasleen beharrak hobeto ezagutu, orduan eta programa eta irakaskuntza eraginkorragoa lortuko bait ditugu. Ikastaroan jorratzen dena, beraz, ez da nola irakatsi, nola ikasi baizik. Ikasleak nola ikasten duen bai, baina baita irakasleak nola ikas dezakeen ere. Irakaslea informazioaren igoerle nola egin daitekeen eta nola lor dezakeen bere klasean ikaskuntza emankorragoa. Horrela, bada, irakaslearen prestaketa aipatzea baino egoikiago litzateke agian irakaslearen ikasketak aipatzea.

G.— Zein da ikastaroaren barne egitura?

E.— Normalki, bi tutore izaten dira ikastaroko. Bata ikastaroaren programazioaz eta planifikazioaz arduratzen da; besteak ez du bere gain hainbesteko ardurarik. Londresen ikastaroaren tutorea eta bigarren tutorearen arteko bereizketa garbiagoa da. Bigarren tutoreak beti lehenengoak esaten diona egiten du. Han denbora eta finantziarioko beharrak direla medio, ez daukate hemen daukagun malgutasuna. Hemen egun batean bi ordutako hitzaldia ematen du tutore batek, eta bigarrenak ordubeteko. Hurrengo egunean aldearantziz edo tutore bakoitzak ordu t'erdiko hitzaldi bat. Guk taldelanean aritzeko askatasun handiagoa daukagu.

Arratsaldetako klase praktikoetan oinarritzen da, batez ere, ikastaroa. Klase praktiko hauetarako ikasle boluntarioak lortu behar izaten ditugu, benetako ikastaro praktiko izan daitezen. Zeren eta teoriak hitzegiten ari bait zaitezke aspertu arte, baina ikasleen aurrean aritu arte ez dute teoriak benetako aplikaziorik. Beraz, ikastaroan oso kontutan hartzen da arratsaldeetako klase praktikoa. Goizetan ematen diren saio teorikoak arratsaldean eman beharko den klasearen arabera programatzen

dira. Esate baterako, arratsaldeko klase praktikoan entzumenaren landu behar bada, horretaz eta hori lantzeko ere hitzaldi bat antolatzen da bizpahiru egun lehenago. Horrela klase praktikoan aplikatu beharko dutenari buruzko ezagupen teorikoa edukitzeko aukera ematen zaie gure irakasle-ikasleei.

Arratsaldeko klase praktikoaren ondoren, tutoreak eta praktika egin duenak elkarrekin analisatzen dituzte gertatu diren gauzak. Are gehiago, irakasle-ikasleek beren buruak kritikatu egingo dituzte eta tutoreak bere irizpideak emango ditu komenigarri iruditzen zaionean. Hasieran ikasleak oso autokritikoak izaten dira jeneralean eta zaila egiten zaie egindakoaren alde onak ikustea. Ikastaroa ez litzateke osoa izango arratsaldeetako klase praktikorik gabe, praktikoa ez baino erabat teorikoa izango bait litzateke.

Ikastaroan parte hartzen duten irakasle-ikasleei eskaintzen zaien beste aukera bat hau da: akademian diharduten irakasleen klaseetan obserbadore gisa egotekoa, horrela ikastaroan ikusitakoa nola gauzatzen den ikus dezaten

G.— Horrelako zenbat ikastaro antolatzen dituzue orain arte?

E.— Bi. Udan egiten dira. Egiten ari garena, Londreseko ITTItik hartutako ideia alegia, dauzkagun euskara, frantses, aleman... irakasleek benetan behar dutena ote den jakitea da kontua. Agian, metodologia eta praktikari buruzko bi astetako ikastaroa, edo entzumenaren edo irakurmenari buruzko astebetekoa, esate baterako, alternatiba bat izan daiteke. Hauek ikastaro laburragoak izango lirateke eta gaiak ere bereziagoak.

G.— Ikastaro horretaz aparte ba al daukazue besterik irakasleen prestakuntzarako?

E.— Londresen lau astetako RSA Preparatory Certificate ikastaroa egiten dute. Bestalde, aipatutako agiria aspaldi lortu eta EFLeri buruzko berrikun-

tzen jakinaren gainean egon nahi dutenentzat, bi astetako hobekuntza-ikastaro bat ere badago. Era berean, irakasleentzat prestakuntzarako bi astetako ikastaro bat, jadanik RSA Preparatory Certificate lortua duten irakasleentzat eta maila altuagoko ikastaroa egin nahi dutenentzat. Eta, azkenik, RSA Diploma in TEFL (Ingelesa Bigarren edo Atzerriko Hizkuntzaren Irakaskuntzaren Prozesu Osoa). Akademia Lacunza RSA Zentrua da. RSA agiria eskaintzen die gure irakasleei. Urtero antolatzen dugu honelako ikastaro bat gure irakasleentzat.

G.— Beraz, zuek ez duzue kanporako ikastarorik antolatzen?

E.— Ez. Bilboko Irakasle-Zentruak, ITTIri lotuta dagoenak eta printzipio berdinekin lan egiten duenak, DOTE (5) RSA ikastaroa antolatzen du eskola eta institutu etako ingeles-irakasleentzat. Ikastaro hau ama-hizkuntza ingelesean ez duten irakasleentzat izaten da. DOTE bi urte irauten duen ikastaro bat da, astero izaten dira mintegiak, irakasleak ikuskatuak euren eskoletako klaseetan; eta ikastaroa bukatzeko, azterketa idatzia ere izaten da. Beharbada, gu geu ere hori antolatzeko gauza izango gara aurrerantzean.

G.— Zure ustez zeintzu lirateke hermen irakasle-zentruak izandako unerik aipagarrienak?

E.— Guk geuk erabaki genuen irakasle-zentrua irekitzea. Badago IH eskola guztien arteko akordio bat, gure lana ingelesaren irakaskuntza soilik ez dela dioena, eta ingelesaren irakaskuntzaren promozioa egitea ere badela. Promoziorik hoberena, zalantzarik gabe, gure klaseak hobetzea da, baina baita ingelesaren irakaskuntzarena ere. Beraz, irakasle-zentrua irekitzea bidezko urratsa izan zen. Zuk promozioa deza kezku ingelesaren irakaskuntza zeure akademian eta aurrerago joan zaitezke, urrats bat eginez, eskura daukazun ezagupenak biltzeko eta ingelesaren

(5) DOTE: Diploma for Overseas Teachers of English.

irakaskuntzaren sustapena seriozki hartua izan dadin. Erabaki hau orain dela bi urte hartu genuen. Mintegiari hasiera emateko programa bat antolatu genuen. Bilerak epe jakinetan egiten ziren. Izan ere, horrela bilduz bakarrik era genezakeen, gure ustez, elkarrekin lan egiteko gogoia izango zuen taldea; eta, bestalde, bilerak erregularri eginez bakarrik izan zezakeen sinesgarritasuna talde horrek. Harrera ona izan zuen ez bakarrik ingeles irakasleen artean, baita beste hizkuntza batzuren irakasleen artean ere, azken hauek ingelesaren irakaskuntzaren printzipioak beren hizkuntzaren irakaskuntzara aplikatuz. Mintegi hauek ingelesez ematen dira. Gero, badugu euskal irakasleentzat bereziki antolatutako ikastarotxo bat ere gaztelaniaz.

Jendea prest dago larunbat-goiza horretan emateko edo arratsaldeetako mintegietara etorri eta liburuak etxera eramateko. Harrera hau oso animagarria da guretzat. Eskariak gero eta gehiago dira, eta jendeak esaten digu zernolako mintegiak nahi dituen. Hau ona da, zeren zenbat eta hobeto ezagutu irakasleen beharrak, orduan eta mintegi egokiagoak antola bait ditzakegu. Mintegi bakoitzak bere garrantzia dauka, jasotako erantzunaren arabera antola bait ditzakezu ekintzak, jendearen beharrak kontutan hartuz. Gure ideiak aldatu egin dira irakasle-zentrua sortu zenetik hona, eta ekintzak gero eta praktikoa goak dira. Editore eta materialgileekin hitzegiten saiatzen gara. Salgai dauden materialak aztertzen ere saiatzen gara, eta material hauekin lan egin duen jendeari hitzegiteko aukera ematen diogu, geure materialak hobeto aukeratu ahal izateko. Editoreek Donostiara etortzeko gogo handia dute, bai bait dakite harrera ona izango dutela.

G.— Zein titulu maila behar da Britain Handian EFL lanbidea hartu ahal izateko?

E.— IHko irakasle guztiek unibertsi-tate mailako titulua behar dute; baina honako kualitateok garrantzi berezia dute: malgutasunak, jendearekiko sentibiltateak, lanerako gaitaunak-ira-

kaskuntza lan gogorra bait da—, jendeari entzun eta erantzuteko gaitasunak eta harroa ez izateak, buru zabalekoa izateak, irakasle zarelako dena dakizula ez pentsatzeak —zeren ez bait dakizu nahitaez dena—, lanean ari zaren jendearengandik ikasteko gai izateak, jendeak ikasteko zer estrategia dituen konturatzeko gaitasunak eta beraiekin lan egiteko biderik aproposenak ezagutzeak. Gauzarik inportanteena zera da: irakasteko gai zarela eta lau astetako RSA Preparatory Certificate ikastaroa bukatu eta gero aurrera egingo duzula ikusi behar dute.

G.— Baina ezin da EFL irakasle bat lau astetan prestatu, ezta?

E.— Ez. Hori ezin da egin ez urtebetean ezta hamar urtean ere. Zuk ezin duzu irakasle bat egin. Irakasle-lanbidea beraientzat egokia den ala ez ikusteko aukera eman diezaiekezu zuk. Batzu konturatuko dira hori ez dela beraientzat moduko lanbidea. Beste batzu irakasten bizpahiru urte pasa eta gero beste urrats bat emango dute, RSA Diploma atereaz; izan ere, agiri hori ezin lor dezake esperientzia handia ez duenak. Lau astetako aurreikastaroa bukatu eta gero, eskolako zuzendari eta irakasle-prestatzaileei dagokie ateraberri diren irakasleen prestakuntza jarraitzea. Zera esango nuke: lau astetako ikastaroarekin lanean hasi bakarrik egiten dela.

G.— Azter dezagun orain irakasle-prestatzailea. Zein baldintza bete behar dira irakasle-prestatzaile izateko prozesuan parte hartu ahal izateko?

E.— Irakasle-prestatzailetzat hartua izateko, lehenbizi maila altua lortu behar da RSA Preparatory Certificate agirian, IHen irakasle bezala lan egin dezazun. Bi urte eman behar dituzu guxtienez lanean RSA Diploma in TEFL hartu baino lehen. Ondoren, beste bizpahiru urtez lan egin beharko zenuke Londreseko ITTIko bi urtetako irakasle-prestatzaile programaren barruan, kandidato bezala onartua izan ahal izateko. Ikus dezakezuen, lehenengo «titulua» eta inportanteena oso irakasle

ona izatea da. Esperientzi oinarri on bat behar beharrezkoa da —laupabost urtetako irakasle-esperientzia gutxienez—, irakasten oso trebeki aritzea. Maila guztietan —behe mailatik goi-goi mailaraino— irakasten aritzeko gauza izan behar duzu.

G.— Zeirtzu dira programa horren berezitasunak?

E.— Prestakuntza hau lau astetako RSA Preparatory Certificate ikastaroen barruan kokatzen da. Lehendabizi, prestatzaileei ondo begiratu behar diezu. Hasieran klase praktikoetako tutorea zara. Horrek esan nahi du ingeles-irakaslegaiak ematen dituzten klase praktikoak obserbatu eta horiei feedbacka eman behar diezula. Goizetako tutore nagusiaren ordubeteko hitzaldiak obserbatu behar dituzu hasiera batean eta gero, bizpahiru hilabete pasa ondoren, bi edo hiru tutoreri entzun ondoren, hitzaldien heren bat eman beharko duzu. Azkenik, bi ordutako hitzaldiak entzungo dituzu, berriz beste bi hilabetez, eta ondoren zuk zeuk eman beharko dituzu. Laburtuz, klase praktikoetako tutore izan eta ordubeteko hitzaldiak obserbatu eta eman eta bi ordutakoekin gauza bera egindakoa, ikastaroko tutore nagusi bihurtuko zara eta ikastaroaren prozesu osoaren programa zure eskuetan geratuko da.

Klase praktikoetako tutore izateko gauzarik inportanteena entrenamendua da, zeren teori hitzaldietan teoriaz ari zara —teoria aplikatua, baina oraindik ere teoria—, baina klase praktikoetan pertsonekin zuzen-zuzenean lan egiten duzu, eta on bezain erraz kalte egin diezaikezu, zeren lehen egin ez duten zer-bait egiten saiatzen ari dira. Normalki ez zaigu gustatzen geure buruak zaurituak izateko arriskuan ipintzerik. Irakaslegaiak kritikak jasotzen ditu begira dauzkanengandik, lankideak eta tutorea barne, eta ikastaroa hain trinkoa denez, jendeak ez du bere buruagan konfidantzarik izaten. Zuk, prestatzaile bezala, beste ezer baino gehiago, psikologo izan behar duzu eta beren konfidan-

tza ez hausteko moduan lan egin eta aholkuak emateko gauza izan.

Hasieran irakasle soil bat izatetik, irakasle-prestatzaile izatera pasatzeko urtebete edo urte pare bat eman behar duzu. Prozesua luzea da benetan. Edozein ez da gauza irakasle-prestatzaile izateko, nahiz eta irakasle ona izan; prestatzaile izateak beste gaitasun batzu eskatzen ditu.

G.— Hitzegin dezagun IHri buruz. Zeirtzu dira IHren ezaugarriak nabarmenak?

E.— 50. hamarkadan sortu zen. Cordoban izan zuen bere sorrera eta 1959an kokatu zen Londresen. Erakundearen helburua ez da dirua irabaztea. Asko hazi da. Dakizueenez, Londreseko Picadilly-n dago; bi gelarekin hasi zen Covent Garden-en. Nik uste dut momentu honetan 43 eskola dituela bere baitan munduan zehar. Hauetako gehienak hizkuntz eskolak dira soilik. IH erakundea bitan banatuta dago, nahi baduzue: ingelesa ikasteko eskola eta ITTI —aparte dagoen departamendua— ingelesa atzerriko edo bigarren hizkuntza bezala irakasten duten irakasleen prestakuntzaz arduratua. Bigarren hau oso lotua dago lehenengoarekin. Adibidez, ingeles-eskolako irakasleak prestatzaileak ere badira. Prestatzaile guztiak bizpahiru hilabetero ingeles-klaseak ematen dituzte; beraz, prestatzaileen prestakuntza esperientzia praktikoan oinarritzen da. Orokorki EFL erakunde aitzindari bezala kontsideratua da. Irakasleen prestakuntzarako RSAk duen korreozko ikastaroa IHek egina da. Atzerriko IHko eskoletan egiten diren ekintza guztiak Londresen aprobatauak izan behar dute. Urtero bidaltzen da ikusatzzaile pedagogiko bat, eskatzen diren baldintzak betetzen diren ikusteko. IHko eskoletan lan egiten duten irakasle guztiak Londreseko IHen prestatuak izan dira. RSA Preparatory Certificaten ez badute kalifikazio altu bat lortzen, ez dira aukeratuak izango IHen lan egiteko. Beraz, erakunde honen ardura nagusia EFLren garapena lortzea litzateke.

G.— Entrebistan zehar askotan aipatu da RSA. Zer da hori eta zernolako loturak daude RSA eta IHren artean?

E.— RSA gai askori buruzko azterketak bere kargu dauzkan erakunde handi bat da. IHk badu zerikusia RSArekin, zeren TEFLA agiria ateratzeko epaimahaiak RSAkoek osatzen bait dute. Era askotako ikastaroak antolatzen ditu. Ikastaro hauek Londreseko IHen eta Ingalaterra eta atzerriko beste zentru batzutan ere ematen dira.

IHeK antolatzen ditu RSA agiria lortzeko ikastaroak. Lau astetako Preparatory Certificate ikastaroek —hasiera batean IHk hasitako ikastaroa RSA Preparatory Certificaten bihurtu zen— RSAk jarritako zenbait arau bete behar dituzte. Adibidez, oinarriko metodologia, ikastunitateen programazioa, silabusak... Ikastaroa ematen duzunean, RSAko ikuskatzaile pedagogiko batek behatzen ditu zure «input» saioak eta klase praktikoak, oinarriko baldintzak, erregistroak, ordutegia, irakaslegaiei buruzko komentarioak... betetzen diren ikusteko. Beharrezkoa denean, parte hartuko du; esate baterako, bere iritzia emango du, irakaslegai bati dagokion kalifikazioa zalantzan dagoenean. Guk Donostian ez dugu ematen lau astetako RSA Preparatory Certificate ikastaroa kanpokoentzat. Guk antolatzen dugun lau astetako ikastaroan gai berdinak ikutzen dira, baina ez dugu RSA agiria emateko ahalmenik. Guk geure akademiako irakasleentzat antolatzen dugu RSA Diploma TEFLA. Bi eratan antola daiteke:

- ikastaro trinkoa: astean behin hitzaldiak emanez, idazlanak jasoz eta obserbazio ofiziala hartuz;
- korreozko ikastaroa-hauxe da orain egiten ari garena-non zuk egiten bait duzu lanaren zatirik gogorrena, besteak beste, mintegi batzutan parte hartuz.

G.— IHren egitekoa garrantzitsua izan da, eta da, irakasleen prestakuntzaren mugimenduan. Zer esango zenuke mugimendu honi buruz?

E.— 60. hamarkadan hasi zen EFL mugimendu bezala indartzen. John Haycraft IHen hasi baino lehenago, EFL irakasleak prestatzeko erakunderik ez zegoen. J. Haycraft-ek IH sortu zuenean ez zegoen testuliburu egokirik. Latina irakasten zen eran irakasten zen ingeleza ere. Hizkuntza baten ikaskuntza irakurtzean eta idaztean zetzan. Baina zein izan zen honen fruitua? Bost urte hizkuntza ikasten pasa eta gero ikaslea hizkuntza hura hitzegiten zen tokira joaten bazen, ez zen gauza ezer ulertzeko. Ikasleek zenbat eta maila altuagoa lortu, orduan eta haien beharrak desberdina goak izaten dira. Ez dituzte denek gauza berdinak egin behar, ikasleek ez dute klasera joan nahi «baldintza» hamabost aldiz ikasteko. Behar dutena da interesatuta dauden gauzak ingelesaren bidez aztertzeko ikastaro berezia, horrela hizkuntz maila hobegotzeko. Laster hasi zen jendea irakaslegoa prestatzeko ikastaro bereziak behar zirela konturatzen eta ingelesaren irakaskuntza benetako lanbide zela. Apenas zegoen irakaslegoa prestatzeko ganorazko ikastarorik. IHk hartu zuen bere gain zeregin hau eta bere irakasleen prestakuntz lanetan hasi zen. Hasteko J. Haycraft-ek bi astetako ikastaroa eman zuen EFLekin lan egin nahi zutenentzat. Urrats horrek ikuspegia arras aldatu zuen. Jatorrizko hitzuna izatea irakaskuntzarako ate irekia zen. Baina gauza jakina da hizkuntza bat jakiteak ez dela esan nahi irakasteko gauza izaterik. Publikazioen merkatua ere jabetu da EFL negozio handia eta behar-beharrezkoa dela munduan zehar. Ingelesak frantsesaren lekua hartu du, nazioarteko hizkuntza bihurtuz.

G.— Bukatzeko, euskara ikasten ari zara, ezta?

E.— Ez, orain ez. Iaz egin nuen ikastaro bat. Orain ere egingo nuke, ahal banu. Arazoa da euskara ikasteko buru-belarri aritu beharra dagoela. Zentruen batera joan beharra daukazu, egunean ordubeteko saioetara gutxienez. Penagarria da. Badirudi niri ondo letorkidakeen ordutegirik ez dagoela. Baina nire

sasieuskara oso ona da, oso trebea bait naiz tabernan gauzak euskaraz eskatzeko. Asko gustatu zitzaidan iazko ikastaroa, batez ere nere ikastestrategiak hobeto ezagutzeko aukera eman zidalako. Izan zuen horrek eragina nire irakaskuntz lanean, zeren konturatu bait hintzen niri euskara ikasten gertatu zitzaidana bera gertatzen zaiela nire ikasleei ingeleza ikasten dutenean. Orduan konturatu nintzen zein lelo ikusten duzun zeure burua ikasle zarenean. Zerbait ez ulertzearen arrazoia askotan hitz bat ez ulertzea izaten da. Zenbat eta irakasleak gauza bat gehiago azaldu, orduan eta gutxiago ulertuko duzu.

Euskara zaila dela esaten du jendeak. Nik uste dut hori esateak arrisku handia duela psikologiaren aldetik. Hizkuntza bat «zaila» dela pentsatzeak oso eragin

negatiboa izan dezake. Nik uste dut beste hizkuntza guztiak bezala, euskarak ere baduela bere barne logika. Euskararen logika beharbada konplexuagoa izango da. Egia esan, niretzat zaila gertatu zitzaidan hizkuntzaz jabetzea, ura eskuz hartzea bezala zen. Zerbaitxo ikasia nuela pentsatzen nuen bakoitzean... ez nuen ezer eskuartean.

Euskara ikasi? Hori gizalegeak eskatzen du, Euskal Herrian bizi izateak. Harrokeria handia dirudi hemen bizi eta euskara piska bat hitzegiten ez saiatzeak. AEKko irakasleekin berriz ere klaseetan aritzea posible balitz, astean bi egunez adibidez, oso ondo etorriko litzaidake. Horien klaseak oso onak ziren eta nire euskaraganako zaletasuna benetan piztu zuten.